

azpeitian zer?

udal aldizkaria

181. zenbakia



AUREKONTUAK: HERRITARREN BIZI KALITATEA ETA ONGIZATEA HOBETZEA HELBURU

Etxebizitza sozialak egitea, Urrestillarako bidegorria gauzatzea, Soreasuko sormen gunea eta hirugarren adinean okerren pasatzen ari diren herritarrentzako diru laguntza linea berria irekitzea izango dira lehentasun



AUZOAK

Urrestillarako bidegorriko lanak eta Nuarbeko ur zikinari irtenbidea



TASAK ETA ZERGAK

2018ko tasa eta zergak ez dira igo eta hobariak indartu ditu Azpeitiko Udalak



azpeitikoudala
denon artean



TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailletza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zaborteia	943 15 18 75



BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Martxoaren 6, 13, 17, 18, 22, 26 eta 27

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Martxoaren 3, 4, 9, 12 eta 19

BERISTAIN

Urbirtarte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Martxoaren 5, 10, 11, 16, 21 eta 28

EIZAGIRRE

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Martxoaren 1, 8, 15, 23, 29, 30 eta 31

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Martxoaren 2, 7, 14, 20, 24 eta 25

ALE HONETAN ZER?

Azpeitia ezagutzen	2
Azoka plaza	3
Merkataritza azterketa	4
Auzoak	6
Tasak eta zergak	8
AURREKONTUAK	10

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Diseinua eta argazkiak:
EREGLI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

AZPEITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN



INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!

AZOKA PLAZA



Azpeitiko azoka plazaren lehenbiziko eraikina XX. Mende hasieran eraiki zen, 1.902 urte inguruan. Urte batzuk beranduago erakin berria egin zen. Otsailean berriz, eraikin berritua inauguratuko dugu.



ELIKADURAREN BIDEZ TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA JOSIKO DITUEN PLAZA

Azpeitiko plaza erabat eraberritu da legegintzaldian. Zaharra zena, berritu, gizartera egokitu eta herritarren plaza bihurtu da. Azoka plaza ere erabat berritu da; baina bertakoa zena bertan gelditu da, baserritarrak. Bertako produktuak.

Otsailaren 3an inaguratu zen eta ordutik zabalik da bertako denda iraunkorra: Elikagunea. Elikaguneak jaki prestatu eta prestatu gabeak saltzen ditu, beti ere produktuen ia guztiak bertakoak direlarik. 150 kilometroren baitan produzitutako produktuak dira. “Plaza eta azoka plaza berrituta herritarrei gune eder bat eskaintzea izan da asmoa. Eta uste dut ondo lortu dugula. Horretaz gain, azoka plazan tradizioa eta

berrikuntza soziala batzeko apustu sendoa egin dugu”, adierazi du Josu Labaka zinegotziak.

“BERTAN EKOIZTU
BEHAR DUGU ETA EKOIZTEN
DUENARI MERKATURATZEKO
ALTERNATIBAK ESKAINI
BEHAR DIZKIOGU”

Baserría iragana da, baina era berean, etorkizuna ere bada. Eta belaunaldien transmisioa bermatu eta landa eremuan ere lanpostu duinak sortu ahal izateko azoka

plazaren bidez lehen sektorea indartu nahi da.

Proiektu anbiziotsua da. Euskal Herrian antzeko egitasmo batzuk abian badira ere, ez dago Azpeitiko bezalako beste eredurik. Elikagunea herritar guztien beharrak bertako produktuekin asetzeko modua egiteko sortu da: “kontsumitzen dugunaren %5 bakarrik da, gaur egun, bertan ekoiztua eta ulertzen dugu bertakoa sustatu behar dugula, landa eremuaren garapenerako eta bizi kalitatean eragiteko. Bertan ekoiztu behar dugu eta ekoizten duenari merkaturatzeko alternatibak eskaini behar dizkiogu”, gaineratu du Labakak. Hori helburu, sortu zen azoka plazaren proiektua.



UR ZIKINAREN ARAZOARI IRTENBIDEA EMATEKO BIDEAN, NUARBEN

Nuarbeko hainbat etxetan, tarteka, ur zikina etortzen zaie iturritik. Azken urteotan hainbat aldaketa egin izan dira bertan arazoa konpontzeko, baina ez dute lortu arazoa guztiz konpontzea. Orain Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Urak beste hainbat neurri hartzea adostu dute.

Abenduan Beizamako ur-depositotik bideratu zen Nuarbera. “Beizaman ez dute urarekin inongo arazorik, eta ur sarera bideratzen den ura garbia eta kalitate onekoa dela bermatzeko Beizamakoa ekartzeari ekin genion”, adierazi du Aitor Bereziartua Azpeitiko zinegotziak.

Datozen asteotan beste neurri batzuk hartzen hasiko dira. Hala, ur sareko hodi nagusia aldatzeko lanak epe motzean hasiko dira. “Duela 3-4 urte Nuarbeko ura daramaten hodirik zaharrenak aldatu ziren eta purgaketa lanak egin ziren, baina arazoa ez da konpon-

du. Sare nagusiko hodia aldatu eta sare osoa purgatu eta garbituta, konpondu beharko lukeela uste dugu” zehaztu du Bereziartuak.

UR SARE NAGUSIRAKO KONEKXIOA

Nuarbeko ura ur deposito propietik iristen da, ez ur sare nagusitik eta horrek arazoak eragiten ditu inguruan. Udalak eta Gipuzkoako Urak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bildu ziren eta bilera horretan adostu zenez, Urrestilatik hasi eta Nuarbe Matxinbenta eta Beizama auzoak ur sare nagusira konektatzeko proiektua 2018an garatu, eta 2019an obrak egingo dira.

**AZPEITIKO UDALAK ETA
GIPOZKOAKO URAK AGENTZIAK
HAINBAT NEURRI HARTZEA ADOSTU
DUTE NUARBEO ARAZOARI
IRTENBIDEA EMATEKO**

AZPEITIA ETA URRESTILLA ARTEKO BIDEGORRIA, GERTUAGO

BIZIKLETA ETA OINEZKOENTZAT GUNE BERRIAREN LANAK AURTEN HASIKO DIRA



Azpeitia eta Urrestilla arteko bidegorria egitea gero eta gertuago dago. Udalak Mugikortasun sailarekin akordioa lortu du, eta, behin Gipuzkoako Foru Aldundiak bere zatia ordaintzeko diru partida jarrita, lanak 2018an hasiko dira. Obrak bi fasetan egingo dira: lehen fasean Udalak berari dagokion zatia egingo du Landetatik Atxubiagako biribilgunera bitartekoa. Udalak lanak aurreratuta ditu eta proiektua egina du, eta datozen asteotan lizitatuko dira obrak. Ondoren, biribilgunetik Urrestillara artekoa egingo da obra horien kostuaren %75 ordainduko du Aldundiak eta gainerako % 25-a Azpeitiko Udalak.

Buruhauste handiak eman eta urteetan luzatu den gaia izan da Urrestillarako bidegorriarena. Hala agertu du Eneko Etxeberria alkateak: “Pasatu den agintalditik datorren gaia da hau, baina azkenean lortu dugu mugikortasun sailak bidegorria egiteko behar den dirua bideratzea. Eta, azkenean,

bidegorria egiteko emandako hitza beteko dugu”.

“BIDE HORREK AZPEITIA ETA URRESTILLA ARTEKO ZATIA OINEZ ETA BIZIKLETAN EGITEA EGINGO DU POSIBLE, ETA HERRITARREN BIZI KALITATEA HOBETUKO DU”

Bidegorria eraikitzeko idatzitako proiektua Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialaren Urola bailarako 5. ibilbidearen zati izango da eta 1.500.000 euro inguruko aurrekontua du guztira. Landetatik Atxubiagako biribilgunera, Udalak egingo du eta zati horrek 400.000 euroko inguruko aurrekontua du. Obra horiek lehen fasean egingo dira. Bigarren fasean biribilgunetik Urrestillara arteko zatia

egingo da eta 1.107.953 euroko kostua izango du; 276.988 euro jarriko ditu Udalak eta 830.965 euro Aldundiak. Bidegorri berria 1.550 metro luze eta 3 metro zabal izango da.

“Pozik gaude Azpeitiko Udalarekin adostutako hitzarmen honekin, eta eskerrak ematen dizkiot bere lankidetzaz-espirtuagatik eta akordiorako prest egoteagatik –azpimarratu du Marisol Garmendia mugikortasun dipuatuak–. Arazo askoren ondoren, gaur egia bihurtuko da aurrekontu-partida baduen bidegorri-proiektu bat, eta Azpeitia eta Urrestilla bizikleta eta oinezkoen bide berri batekin lotuko duena”.

Etxeberriak bidegorri hori mugikortasun jasangarriaren aldeko “apustu sendoa” dela gaineratu du: “Bide horrek Azpeitia eta Urrestilla arteko zatia oinez eta bizikletan egitea egingo du posible, eta herritarren bizi kalitatea hobetzen lagunduko du”.



BERTAKO MERKATARITZA TXIKIA INDARTUZ

ETORKIZUNeko MERKATARITZA ESTRATEGIA DEFINITZEK AZTERKETA EGIN DUTE, UDALAREN LAGUNTZAZ

Herrian bizi eta kontsumitu. Hori da helburua eta apustua. Horretarako, merkataritxikiei ahalik eta baliabide gehienak eman nahi zaizkie azpeitiarren kontsumoa herrian izan dadin. Bide horretan, azpeitiarren kontsumo ohiturak ezagutzea ezinbestekoa da eta iaz egin zen azterketa. Iraurgi Berritzen garapen agentziak gidatzen duen Merkataritza Mahaiak burutu zuen.

Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako merkataritxikiek (Bertan, Herrixen eta Zestoan hain zuzen ere), hiru herrietako udalen babesarekin eta Iraurgi Berritzenekin elkarlanean, MERKAUROLA egitasmoa abiatu zuten eta elkarlan horren lehen fruitua izan da azterketa.

Azterketa Urola Erdia bailara osoan egin zen eta ausaz hautatu ziren 1.050 pertsonen erantzun zuten galdetegia. Dena den, emaitzen

adierazgarritasuna bermatze aldera, aintzat hartu dira hauen adina, sexua nahiz jatorrizko udalerrira moduko irizpideak.

AZTERKETAK, EROSKETA OHITUREN INGURUKO INFORMAZIO UGARI ESKAINI DU ETA ESKUALDEKO MERKATARI TXIKIAREN INDARGUNE ZEIN AHULGUNEAK IDENTIFIKATZEN LAGUNDU DU

Garatu den azterketak, erosketaren inguruko informazio ugari eskaini du eta eskualdeko merkataritza txikiaren indargune zein ahulguneak identifikatzen lagundu du. Modu honetan, azterketatik atera diren ondorio nagusiak honako hauek izan dira:

1. Egun, merkatalgune handi, hirigune nahiz internet bidez erosketak egiteko joera nabarmena dago. Azken urteetan indarra hartzen ari den joera izan arren, honek eskualdeko merkataritzan duen eragina oso ezberdina da produktu edota zerbitzuaren arabera.

2. Oro har eguneroko erosketari dagokionean, erosketen %75 baino gehiago herrian bertan egiten da. Arraina, haragia, ogia, urdaitegia eta frutaren kasuan portzentaia hau ere handiagoa da. Produktu kategoria hauetan, azpimarratzekoa da kontsumitzaileak denda tradizionalen duen konfiantza. Oro har, erosketaren burutzeko lehen aukera dira denda tradizionalak. Esaterako, ogiaren kasuan, 10 erosketatik 7, denda tradizionalen egiten da.

Aldiz, elikadura lehorra nahiz zaintza pertsonalari lotutako pro-



duktuen erosketari dagokionean, kontsumitzaileak supermerkatuetara jotzeko duen joera nabarmena ikusi da.

3. Aldizkako erosketaren kasuan, merkatalgune handi nahiz hiriguneen eragina nabarmenagoa da. Esaterako, oinetako eta arroparen kasuan, erosketen %50era ez da iristen herrian bertan egindakoa.

Bestalde, azterketak, internet hartzen ari den garrantzia azaleratu du. Egun, internet, arropa, oinetako, liburu nahiz informatikako gailuak erosteko da erabiliena. Gainera, internet, erosketa kanal moduan erabiltzetik haratago, produktuen inguruko informazioa aurkitu nahiz produktu ezberdinak aldera-tzeko erabiltzen dira. Azterketaren arabera, internet bidez egindako erosketa kopurua hazten joatea aurreikusten da datozen ur-

teetan. Era berean, aipagarria da zentzu honetan, Azpeitiak, eskualdeko herrigune txikienetatik herritarrak erakartzeko duen gaitasuna.

4. Oro har, azterketan zehar, herritarrei eskualdeko merkataritza eskaintzaz galdetu zaie. Erantzuleen % 90,01-k, herriko merkataritzak duen eskaintzarekin gustura dagoela adierazi du.

Era berean, bertako merkataritzatik gehien baloratzen diren faktoreak bi dira. Batetik, dendariak bezeroarekiko duen gertutasuna eta honi eskaintzen dion tratua pertsonalizatua. Bestetik berriz, herritarrak balioan jartzen du herriko merkataritzak eskaintzen dion erosotasuna.

Jaso diren emaitza eta ondorioak, eskualdeko merkataritza guztientzat irekiak izan diren lan bileretan aurkeztu dira. Honetarako, udalerrri ezberdi-

netan lan bilera zehatzak antolatu ziren 2017 urte amaieran. Lan bilera hauen bitartez, emaitzak aurkezteaz haratago, merkatarien ikuspuntu nahiz kezka nagusiak identifikatu nahi izan ziren. Oro har, sektorean gorabehera nabarmenak ikusteaz gain, merkataritza txikiak ziurgabetasun garaiak bizi dituela hauteman da.

Behin emaitza eta ondorioak eskualdeko merkatariekin elkarbanatuta, eskualdeko merkataritza mahaiak lankidetzan ekimen berriak abiatzea aurreikusten du. Hala, otsailan esaterako, ikus-entzunezkoak lagunduta bertako merkataritza sustatzeko sentsibilizazio kanpaina jarriko da abian. Komunikazio ekintza honen bitartez, eskualdeko merkataritza txikian erosteak dituen abantailak aurkezteaz gain, merkataritza tradizionalak eskualdeko ekonomian nahiz herriguneen bizitzan duen garrantziaz sentsibilizatu nahi da.

2018KO TASA ETA ZERGAK EZ DIRA IGOKO ETA ALDIZ, LAGUNTZAK INDARTUKO DIRA

ORAINDIK EKONOMIA ZAILASUNETATIK IGAROTZEN ARI DIREN FAMILIEI "KEINUA" EGIN NAHI IZAN DIE UDALAK

2018an zerga eta tasetan igoerarik ez egitea onartu du Udalak. Herriaren eta herritarren egoera ekonomikoa hobetzen ari bada ere, -langabezia krisiaren unerik latzenezan %17ko tasa izan zen, eta azken datuen orain %9,3koa da- oraindik ere herritarren ahalegina handia dela jakitun da Udala, eta, horregatik, zerga eta tasak bere horretan uztea erabaki du: "Oker pasatu duten familiak oraindik ere errekuperatzen ari dira, eta herritarrekin dugun konpromisoa aintzat hartuta, keinu bat egin nahi izan diegu", adierazi du Eneko Etxeberria alkateak.

BEHAR GEHIEN DITUZTEN
HERRITARRENTZAT BABES
SOZIALA SENDOTZEKO HARTUTAKO
KONPROMISOAREKIN HOBARI GEHIAGO
ERE IZANGO DIRA AURTEN

Esfortzu hori, ordea, gaur gaurkoz, Azpeitiko Udalak nahikoa baliabide eta bitarteko dituelako da. Kalitateko zerbitzu publikoen eskaintza eta kalitatea bere horretan mantentzea, tasa eta zergak bere horretan mantendu eta hobariak hobetu eta egokitzea Udalaren egoera finantzario onak egiten du posible, eta hori azken urteotako kudeaketa onaren ondorio da. Behar gehien dituzten herritarrentzat babes soziala sendotzeko hartutako konpromisoarekin hobari edo deskontu gehiago ere ezarriko ditugu 2018. urterako.



IGOERARIK EZ

Ez da igoerarik aplikatuko herritarrentzat nagusienak diren zergetan, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga, ekonomia jardueretako zerga, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga, hiri lurren balio gehitzearen gaineko zerga eta urteko zaborraren zerga bere horretan mantenduko dira.

HOBARI BERRIA FAMILIA UGARIENTZAT

Ibilgailuen zergan, familia ugariarentzat hobaria ezarriko da (orain artean ondasun higiezinaren zergak bakarrik zegoen). Hobaria familia unitatearen diru sarreraren arabera izango da, bakoitzak bere ahalmen ekono-

mikoaren arabera ekarpena egitea baita justuena. Lehendik ondasun higiezinaren gaineko zergan bazegoen hobaria eta mantenduko da, aldaketa bat egingo da, diru sarrera kopuru batetik (90.000 €) aurrera ez dute hobaririk izango. Eta irizpide berdina jarraituz, hau da progresibitatea oinarritzat hartuta, kirol patronatuko familia abonatueta diru sarreraren arabera ezarriko dira hobariak edo deskontuak (orain arte ez bezala).

LUR PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUKO TASEN RAZIONALIZAZIOA

Kaleko salmenta postuak. As-tearteko azoka egunetan herriguneari ezartzen diren salmenta postuetan. Baserritarren sektorea bada

sektore bat babes sozial eta ekonomikoa behar dituen, beraz ordaindu beharreko tasa bere horretan mantenduko da, (ordaindu beharreko tasa sinbolikoa da).

Gainerako salmenta postuei metro karratuko ordaintzen duten urteko tasa igoko zaie, batezbeste urteko 100 bat euro. Udalaren lehentasuna herriko merkataritzak izaten jarraitzen du eta honek aukera emango dio herriko merkatariei baliabide gehiago eskaintzen jarraitzeko.

Terrazetako tasa, kalkulua ego- kitutakoak.

Herriko tabernariak, taberna kanpoaldean jartzen dituzten mahai eta aulkien tasa. Iaz katastroaren balioak eguneratu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta honek eragina izan zuen terrazaren tasan. Izan ere, udalak lurzoruen balioaren arabera ezartzen zituen ordaindu beharreko kuotak. Ordaindu beharreko tasak kalkulatzeko modua aldatuko da, horrela kuota objektibo eta orekatuak kalkulatzeko da helburua. Hemendik aurrera okupatzen den metro koadro kopuruaren arabera ordaindu beharko da, horretarako urte osorako tarifa bat ezarri da eta beste tarifa bat udaberri udara sasoirako.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN ZERBITZUA MERKEAGO

Etxez etxe laguntzaren orduko kostua 14€-tara jaitsi eta finkatuko da (orain artean 20 euro zen). Hala, udalaren helburua da laguntza hori behar dutenek merkatu librerari beharrean zerbitzu publikoa erabiltzea, eta langileen lan baldintza duinak bermatzearekin batera, zerbitzuaren erabiltzailearen jarraipen egokia egitea.



19.292.184 EURO IZANGO DITU UDALAK 2018AN HERRITARREN BIZI KALITATEA HOBETU ETA ONGIZATE GIZARTEAN EREDU IZATEKO



2018AN GAUZATUKO DIREN PROIEKTUEN ARTEAN ETXEBITZA SOZIALAK EGITEA, URRESTILLARAKO BIDEGORRIA EGITEA, HIRUGARREN ADINEAN OKERREN PASATZEN ARI DIRENENTZAKO DIRU LAGUNTZA LINEA BERRI BAT ETA SOREASUKO SORMEN GUNEAREN LEHEN FASEKO OBRAK ONARTU DITUZTE

Azpeitiko Udalak 19.292.184 euroko aurrekontua izango du 2018an, abenduko plenoan Udaltzako aho batez onartu eta gero. Eneko Etxeberria Alkateak Udal Gobernuak adostasunak lortzeko duen gaitasuna azpimarratu nahi izan zuen: “Azken 6 urteotan akordio zabalak lortzeko egin dugu lan eta lortu dugu. Hor daude Plan estrategikoa, aurrekontuak... Onartzen ditugun proiektuek gehiengoaren babes izatea bilatzen dugu; bai herritarrena, bai beste alderdiena...”. 2018ko aurrekontuak “aitzakiarik gabeak” direla gaineratu nahi izan du eta herrian, eta, batez ere, herritarrengan eraldaketa sakona eragingo dutela: “Ongizate gizartearen eredu izateko aurrekontuak osatu

ditugu. Duintasuna ekarri nahi dugu herrira: duintasuna lan baldintzetan eta langabetuentzat; duintasuna babes sozialesan eta duintasuna etxebizitza beharra dutenentzat”.

“DUINTASUNA EKARRI NAHI DUGU HERRIRA. DUINTASUNA LAN BALDINTZETAN ETA LANGABETUENTZAT, BABES SOZIALEAN ETA ETXEBITZA BEHARRA DUTENENTZAT”

Bide horretan, zenbait partidak garrantzia berezia izango dute 2018an. Hala, orain artean bezala

ekonomia sendotzen jarraitzea izango da apustu nagusienetarikoa bat: “Eustat-en arabera %8,6koa da gure herriko langabezia, eskualdeko tasa txikiena dugu, baina lana egin nahi duen, eta lanposturik ez duen, herritar bat dugun bitartean ekonomia sendotzeko neurriak hartuko ditugu. Hala ere, duela hainbat urte jarritako neurriak berraztertu eta egokitu egin behar ditugu, egoera berri honi aurre egiteko. Lanpostuak sortu nahi ditugu, baina lanpostu duinak, sortzen diren postuen kalitateak oso kezkatuta gauzka” zehaztu du. Bide horretan, Ekonomia, enplegua eta formazioa partidak %25 egin du gora, iazkoarekin alderatuta. Formazioa eta hezkuntzari dagokionez, UEU eta Deustuko unibertsitatearekin Udalak dituen hitzarmenak oso

positibotzak jo ditu, eta herritarrei kalitateko formazioa eskaintzeko, eta eskaintza hori zabaltzeko asmoz urtarrean IMHrekin lankidetzaz hitzarmena sinatu du Udalak ikastaroak eskaintzeko.

Herritarren bizi kalitatean eragiteko beste bi aurrerapauso garrantzitsu ere bermatuko dira 2018ko aurrekontuekin: alde batetik, azken urteotan abian jarritako etxebizitza politikei jarraipena emateko pauso gehiago emango dira. Hala, Udalak Esklabetako eraikinean alokairurako etxebizitzak eraikitzeaz gain, Alde Zaharra eraldatu eta balioan jartzeko neurriak hartzeko konpromisoa azaldu du. Eta, bestetik, ongizate gizartean eragiten jarraitzeko, 3. adinean okerren pasatzen ari direnei zuzen-

duriko laguntza bat jartzea aztertzen ari da Udala. Iaz, 80 urtetik gorako herritarren egoera aztertzeko eginiko ikerketan irteerako ondorioen arabera zehaztuko dute laguntza. Aurten, 75 urtetik gorakoen artean hasiak dira ikerketa egiten, herritarren beharrak ezagutzeko.

Azpiegiturei dagokionez, herriarentzat garrantzitsu izango diren azpiegitura asko bukatzen ari dira; hala nola, azoka plaza otsailaren 3an inauguratu da eta Basazabal datozen hilabeteotan bukatuko da. Soreasuko sormen gunea eta Urrestillarako bidegorria egiten ere hasiko da Udala.

Leire Goenaga Ogasun batzordeburuak Udalaren egoera eko-

nomiko "on eta egonkorra", herritarren beharrei erantzun egokia ematea ahalbidetzen duela azpimarratu nahi izan du. Datutan sartuta, Etxeberriak aipatutako proiektuen isla direla datuak azaldu du: "Igoera nagusia izan duten partida nagusiak ekonomia eta gizarte zerbitzuak izan dira. Justizia soziala lortzearen baitan pauso garrantzitsuak emango ditugu bai gizarte zerbitzuetako laguntza berriaren bidez eta etxebizitza eskubidea bermatzeko emango ditugun aurrerapausoekin". Urrestillako bidegorria eta Soreasuko Sormen gunea proiektu garrantzitsu eta inbertsio handiak izanagatik hirigintzako partida jaitsi egingo da, hala ere, inbertsionarako 2,3 milioi inguru izango ditu 2018an Udalak.

2018KO AURREKONTUA, ZENBAKITAN

Udalaren 2018ko aurrekontu orokorra: 20.825.354,46 €

Udalaren aurrekontu propioa: 19.292.184,46 €

Euskara Patronatua: 613.419,55 €

Udal Kirol Patronatua: 1.393.644,56 €

Azpeitia Berritzen, SA: 833.500 €

SAILAK	2018ko aurrekontua	Iazko aurrekontuekin alderatuta
Ogasuna eta kontuak	465.964,27 €	-%37,8 (maileguen amortizazioaren jaitsiera dela eta)
Hirigintza eta ingurumena	2.733.621,24€	- %11
Euskara eta hezkuntza	911.669,55€	+ %17
Kultura eta gazteria	867.500€	+ %3
Kirola	900.474,56€	+ %6
Gizarte Zerbitzuak	1.779.700€	+ %70 (+ %14,5)
Langileria eta antolakuntza	5.501.150,14€	+ % 0,3
Festak	559.000€	+ %13
Zerbitzu orokorrak	3.609.624,96€	+ %1
Alkatetza	226.000€	+ %3,7
Ekonomia, enplegua eta formazioa	1.339.479,74€	+ %25
Parekidetasuna	152.000.000€	+ %5,5
Baserriak	246.000€	-%1
GUZTIRA	19.292.184,46 €	



AZPEITIA, KULTUR EPIZENTRO

GERO ETA KULTURZALE GEHIAGO BILTZEN DIRA SANAGUSTIN KULTURGUNEAN; URTEZ URTE GERO ETA EKITALDI ETA IKUSENTZULE GEHIAGO DIRA. AZPEITIKO UDALAK, KULTUR MAHAIA ETA KULTURAZ KOOPERATIBAREKIN EGITARAU BATERATUAREN BIDEZ KULTURA SUSTATZEN JARRAITUKO DU



2017a amaitu berri denean, Sanagustin kultur gunean kulturak eman duenaren erreposoa egin eta aurrera begirako erronka berriei eusteko ordua da. Kultur eskaintza-aren epizentroa bihurtu da Azpeitia.

Azpeitiko kultur mugimenduaren gakoa edo sekretua oinarrian dago, kultur taldeetan, eta norbanakoen dinamiketan. Horiei baliabideak eskaini eta herrira begirako proiektuak sortzeak kulturara jendea erakarri du. Gaur egun Sanagustinen izaten diren ekitaldien %75a herriko eragileek antolatzen dituzte.

Azken urteetan egindako lanari eta elkarlanari esker, Sanagustin kultur guneak eta Soreasu antzokiak erreferentzi bilakatu dira kultur gile eta kulturzaleentzat. "Izugarriak

dira kulturak gurean ematen dituen emaitzak. Urtero goia jo dugula dirudi, baina aurretik, berriz ere gora egin dugu, eta goraka segitzeko lanean jarraitzeko konpromiso osoa dugu", adierazi du Josu Labaka zinegotziak. Kultura aisia izateaz gain, gurean inpaktu ekonomikoa ere sortzen duela azpimarratu nahi izan du.


Baina plaza eskaintzeaz gain, Azpeitiko Udalak kultur eragile eta norbanakoekin sormen gunea erakitzeko proiektua ere osatu du Kultur Mahairekin elkarlanean. Hala, 2018 urteko aurrekontuetan milioi bat euroko inbertsioa egitea aurreikusten da Soreasu eraikinean. Lanak, berriz, faseka egingo dira.

Modu honetan, lehen fasean, arte eszenikoen eremua, hitza-aren eremua eta irudiaren eremua egokituko dira. Bigarren faseko geldituko da soinuaren eremua. "Proiektu anbiziotsua da. Sormenaren zikloa osatu nahi dugu, ez dugu soilik plaza izan naiz. Plazan ikusten ditugun proiektuek oinarriak herrian eta baldintza onetan sortuak izatea nahi dugu", gaineratu du.

**GAUR EGUN SANAGUSTINEN
IZATEN DIREN EKITALDIEN
%75A HERRIKO ERAGILEEK
ANTOLATZEN DITUZTE**


1. EKITALDIAK.

2011ko uztailean hasi ziren jardunarekin. Harrez geroztik, ekitaldi kopuruek, urtetik urtera, goranzko joera izan dute. Iaz 194 egin zituzten.




2. IKUS-ENTZULEAK.

Goranzko joeran dago ekitaldietara doazen ikus-entzuleen kopurua ere. Ekitaldiko batz bestekoa ateraz gero, 229,52koa da emaitza.




3. SORTZAILEEN JATORRIA.

Euskal kultura sustatzeko helburuz jaiotako Kooperatiba da. Horrela, esfortzu berezia egiten da eskaintza gehiena bertako eta euskal sortzaileen eskutik egiteko.



4. EUSKARA.

Izan diren 194 ekitaldietatik 19tan izan ezik, beste guztietan euskara izan da erabilitako hizkuntza.





ADINEKOEN BEHARRAK EZAGUTU ETA HAIEI ERANTZUTEKO KONPROMISOA HARTU DU UDALAK

BAIGERA JUBILATUEN ELKARTEAREKIN BATERA EGINDAKO INKESTAN HERRIKO 337 PERTSONEK HARTU DUTE PARTE ETA HAUEN EGOERA EZAGUTU ETA DITUZTEN LAGUNTZAK AZALTZEKO AUKERA IZAN DA

Egungo gizartea zahartzen ari da, adineko pertsonen kopurua haundituz. Eta Azpeitia ez da salbuespena. Izan ere, 2016ko abenduan, Azpeitiko biztanleen %21ek 65 urtetik gora zituen. Beraz, biztanleriaren %20 da adinekoa, eta aurrirakosten da 2031n %30era iritsiko dela kopuru hori. “Gizarte babes eta arreta berezia merezi duen sektorea da adineko pertsonen eta Udalaren ardura da herritar guztien babes soziala eta bizi baldintza duinak bermatzea, eta are gehiago sektore honena”, agertu du Estitxu Elduaien Azpeitiko Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak.

Honela, Azpeitiko Udalak eta Baigera jubilatuen elkarteak iazko uda-

berrian indartu zuten elkarlanaren pauso berriak emanik, 80 urtetik gorako herritarren egoera eta bizi baldintzak ezagutzeko ikerketa abiatu zen. Lehen neurria Udalak kolektibo horri eskaintzen dizkien diru-laguntzen inguruko informazioa zabaltea izan zen.

**AURTEN, BERRIZ, 65
URTEK GORAKO HERRITARREN
AZTERKETA ABIATU DUTE
DAGOENKO UDALAK ETA
BAIGERA ELKARTEAK**

Hor antzeman zen 80 urtetik gora dituzten 925 azpeitiarretik 552 zirela Udaleko Gizarte Zerbitzuen inguruko informaziorik jaso ez dutenak edo informazioa izanda ere, prestaziorik jaso ez dutenak. “Horrela, banan-banan, haiengana iristeko ahalegina egin da, zer egoeratan zeuden jakin, informazioa eman eta, egoeraren arabera, zegozkien laguntzak bideratzeko asmoz”, azaldu du Elduaienek. Azkenean, 337 herritarrekin osatu da azterketa baina Azpeitiko Udalak positibotzak jo du. “Gizarte Zerbitzuekin harreman zuzenik ez zuten beste 337 pertsonarengana iristea lortu dugulako; eta hori jauzi kualitatibo handia da”, aurreratu du Elduaienek.

ONDORIO NAGUSIAK

EGOERA EKONOMIKOA. Bisitatutako familien %69,7ak esan du hil amaiera ondo iristen dela dituen diru-sarrerekin. %24,9ak esan du zailtasun batzuekin iristen dela; %4,5ak nahiko larri iristen dela, eta %0,9ak ez dela iristen. Arazo ekonomikoek dagokionez, inork ez du oinarrizko beharrianak asetzeko zailtasunik adierazi, eta arazorik nagusia aisialdiko gastuetan antzeman da. Ikerketak erakutsi du beharra dutenen kasuan aurrezkie-tatik tiratzen duela %21ak, eta kasu gehienetan familia dela laguntza iturri nagusia, eta administrazioen diru-laguntzetara ez dela hainbeste jotzen.

BAKARRIK BIZI DIRENEN ZENBATEKOA. %27,1a bizi da bakarrik, eta horietatik gehienak alargunak dira. Hala ere, bakarrik bizi direnen artean ez da bakardade zantzu handirik aurkitu eta autonomoak eta beren buruen jabe dira gehienak, eta ondo moldatzen dira egunerokotasunean. Gehienek harreman ona dute familiarekin, eta etxean eduki ez arren, ia egunero dute harremana eurekin.

AUTONOMIA MAILA. Erabateko autonomia ez dutenak eta guztiz autonomoak direnak aurkitu dituzte. Halere, esan daiteke, nahiz eta badauden 24 orduetan norbaiten beharra dutenak, oro har, adin tarte horretako jendea nahiko autonomia dela, eta eguneroko eginkizun minimoetarako ez dutela inoren laguntzarik behar. Hala ere, etxeko garbiketa egiteko laguntza beharra nabarmendu dute askok.

ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK. Orokorrean egoera onean daude etxeak, baina aipatzekoak dira aurkitu dituzten hiru oztopo arkitektoniko nagusi: bainugelen egokitasun falta, ohe artikulatuen beharra eta igogailuaren premia.

OSASUN EGOERA. %65,5ak esan du osasun maila ona duela. Gainerakoek nola-halakoa dutela adierazi dute, eta horrek erakusten du, etorkizun hurbil batean pertsona horien gaitasunak murrizteko eta mendekotasun egoerak ugaritzeko aukera handiak sor daitezkeela.

ZAINTZA. Zaintzari dagokionez, %64ak zaintza laguntzarik ez du behar, eta %36ak bai. Laguntza behar dutenen kasuan, gehienek jaso egiten dute, eta behar ez dutenen erdiak ere bai. Horrek erakusten du orokorrean gehienak ondo zainduta daudela. Jasotzen duten laguntza motari dagokionez, %60ak laguntza informala jasotzen du (familia edo bizilagunak), %22,49ak laguntza formala, eta gainerakoek biak jasotzen dituzte.

PRESTAZIEN INGURUKO EZAGUTZA. Bisitatu diren herritar askok ez zuen zegokion diru-laguntza eta bestelako prestazioen inguruko informaziorik, eta behar adinako informazioa eman zaie, eta beharrezko arabera zerbitzuak eta prestazioak eman zaizkie.

Hala, Udalak zein Baigera elkarteak ikerketaren balorazio positiboa egin dute. Izan ere, 80 urtetik gorako inguruko datu bilketa egiteko aukera eman du, haiengana gerturatzeko bidea ireki du, Gizarte Zerbitzuekiko distantziak murrizteko pausoak eman dira, eta, kasu askotan, esku hartzeak jarri dira abian.

Baigerako kide Patxi Altzibarrek ikerketa honekin salto kualitatiboa eman dela azpimarratu nahi izan du baina aurrera begira pauso gehiago daudela emateko agertu du: "Iritsi ez garen horiengana iristeko ahaleginetan jarraitu behar dugu, 80 urtetik gorakoekin eta baita

bestelakoekin ere", azpimarratu du. Ikerketak 80 urtetik gorako herritarren argazki bat atera du, eta beharrak zein diren detektatzen lagundu die: "Orain, Udalean emaitzak aztertu eta behar horiei ahalik eta ondoen erantzuteko bideak aztertzen ari dira: zailtasun eta oztopoei aurre egiten laguntzeko zein baliabide eskaini aztertzen, eta horren arabera neurri batzuk hartuko dira. Horrekin batera, eta Udala eta Baigera elkarlanean, orain bi urte hasitako bidean sakontzen jarraitzeko ekintza berriak zehazten ari gara dagoeneko, datorren ikasturtera begira jarri eta plangintza bat egiteko, beti ere helburu nagusi batekin: adinekoen

bizi baldintzak eta babes soziala hobetzea".

Bukatzeo eskerrak eman nahi izan dizkiete, ateak ireki eta parte hartu duten herritar guzti horiei eta beren familiei. Ikerketa honen inguruko informazioa zuzenean helaraziko zaie ikerketan parte hartu dutenei. Horrez gain, udal webgunean eta Baigerako webgunean ere jarriko da ikerketa osoa herritarren eskuragarri.

Bestalde, 80 urtetik gorako herritarren azterketak izandako emaitza postiboak ikusiz, 65 urtetik gorako azterketa abian jarri du dagoeneko Udalak.



90 ENPRESA PROIEKTU LAGUNDU DITU UDALAK EKONOMIAREN SUSTAPEN PLANAREN BIDEZ

GUZTIRA, 331.940 EURO BANATU DITU 2017 AN ENPRESA BERRIAK EDOT A LANPOSTU BERRIAK SORTZEKO PROIEKTUETARA



Herriko ekonomia indartzen jarraitzeko bidean, Udalak Ekonomiaren Sustapen Planari garrantzi berezia ematen dio. Azken urteetan egindako apustuari esker, herriko langabezia datuak hobetzea lortu da eta enpresa eta proiektu berriak Azpeitian finkatzea lortu da. Hala, 2016ko partida handitu eta 2017 urtean 350.000 euro bideratu ziren Sustapen Planera eta 2018 urtean ere sustapen planaren aldeko apustua egin du. “Urtez urte eskaerak igotzen ari dira, harrera ona izaten ari da, eta

eskaera horien bidez sortzen dira lanpostu berriak. Enplegua sortzea da gure helburua, baina kalitateko enplegua nahi dugu izatea, eta hori da gaur egun gure kezka nagusia”, dio Estitxu Elduaizen zinegotziak.

Asmo horrekin, eta 50.000 euro gehiagorekin, 2017 urteko Ekonomia Sustapen Plana abian jarri zen eta 81 eskaera jaso dira, guztira 90 proiektu diruz lagunduz. Iaz egin bezala, Planeko 350.000 euroak lau laguntza lerrotan berezita banatu dira:

- Proiektu ekintzaileak eta izaera soziala duten proiektuak (irabazi asmorik gabeko entitateak). Hiru proiektu lagundu dira eta guztira, 17.303 euro bideratu dira.
- Merkataritza arloan eta lehen sektorean enplegu sustapena finantzatzeko proiektuak. Lerro honetan 42 laguntza izan dira guztira eta 50.127 euro zuzendu dira.
- Industria proiektu estrategiko edo berritzaileen bitartez enplegu sustapena finantzatzeko proiektuak. Denera 21 proiektu lagundu dira eta 192.000 euro banatu dira.
- Ekintzailetasuna sustatuz enpleguaren sorrera bultzatzeko proiektuak. Azken lerro honetan 24 proiektu lagundu dira eta 72.500 euro banatu dira.

2017KO EKONOMIAREN SUSTAPEN PLANEN LAGUNTZAK ZENBAKITAN:


Eskaerak guztira; **81**

Laguntzak lerro bakoitzaren arabera;

1. Lerroa; **17.303** euro
2. Lerroa; **50.127** euro
3. Lerroa; **192.000** euro
4. Lerroa; **72.500** euro

Bigarren lerroko laguntzen banaketa berriz, horrela egin da:

- Kontratazioak **12**
- Inbertsioa/obrak **27**
- 1.go sektorearen eraberritzea **2**
- Bertako produktuen kontsumoa **1**
- Alokairua **3**
- Alde Zaharreko obrei laguntzak **2**



INDUSTRIA ETA MAKINA ERREMINTAKO IKASTAROAK AZPEITIAN ERE EMANGO DITU IMH-K

OTSAILTIK EKAINERA BITARTEAN MAKINA ERREMINTAREN IKASTAROAK ESKAINIKO DIRA AZPEITIAN

Udal Gobernuak urteak daromatza formazioaren aldeko apustuarekin. Apustu garbia eta sendoa izan zen hasieratik, eta bide horretan jarraitzen du, eskaintza indartuz urtez urte. Hala, Deustu eta UEUrekin egindako hitzarmenen bidez ikastaro eskaintza zabalaz gain, zuzenean antolatutako ikastaroak ere eskaintzen dira. Azken urrats bezala, makina erremintaren inguruko formakuntza emateko hitzarmen sinatu du Udalak IMHrekin. Hitzarmena herritarrak formatzen jarraitzeko gakoa dela uste du Eneko Etxeberria alkateak “Formakuntza gizarte eraldaketarako tresna nagusia da. Pertsonak bizitzan barrena formatzen joaten gara, eta guk herrita-

rrak ahalik eta profesional onenekin formatzea nahi dugu”.

“PERTSONAK BIZITZAN BARRENA FORMATZEN JOATEN GARA ETA GUK HERRITARRAK AHALIK ETA PROFESIONAL ONENEKIN FORMATZEA NAHI DUGU”

IMHrekin sinatutako akordioari esker, ikastaro gehiago eskaini ahal izango dira Azpeitian datozen lau urteetan. Hala, otsailetik ekainera bitartean izango dira lehen ikasta-

roak. “Jakitun gara gure herriaren ekonomiaren sekretua industrian dagoela. Duela bi urte eskualdeko mapa industrialala egin genuen, eta gure eskualdean makina erremintak izugarriko indarra zuela ikusi genuen, eta herritarra arlo horretan lan egiteko prestatzeko helburuz egin dugu hitzarmena”, zehaztu du Etxeberriak.

Ixaka Egurbide IMHko zuzendariak formazioa gizartearen garapenean ezinbestekoa dela azpimarratu du: “Hitzarmen honen bidez gizarteari egin nahi diogu ekarpena bertatik bertara, herrian bertan egin dezakegu eta oso pozik gaude eta guretzat ere aukera oso ederra da”.



AZPEITIKO 77 HERRITARREK JASO DUTE ALOKAIRURAKO DIRU-LAGUNTZA

UDALAK 200.000 EURO BIDERATU DITU EGITASMORA, IAZ BAINO 50.000 GEHIAGO

Alokairua ordaintzeko arazoak dituzten herritarrak ei laguntza eskaintzea, herriko etxe hutsak merkaturatu eta alokairua sustatzea eta Alde Zaharra biziberritzeko saiakeran jarraitzen du Udalak. Honela, indarra ematea nahi izan dio eta aurreko urteetan baino diru gehiago bideratu du alokairurako laguntzerata; 200.000 euroko partida zuzendu zuen, iaz baino 50.000 gehiago. Bide berdinean jarrituko du urte honetan zehar eta partida kopuru berdina bideratuko duela aurreratu du.

2017ko laguntzei dagokienez, 77 herritarrek jaso dute. Guztira 81 herritarrek eskatu dute, baina "baldintzak bete ez dituztelako", lau eskera baztertu behar izan dituzte. Laguntza hauek jaso dituzten kolektiboek dagokienez, 18 eta 35

urte bitarteko gazteak dira laguntza jasotzen duten gehiengoa, laguntza egokitu zaien 77 lagunetatik 67 baitira kolektibo horretakoak. 70 urtetik gorako 3 herritarrek eta banandutako 7 lagunek ere jaso dute.


ALOKAIRUA ORDAINTEKO ARAZOAK DITUZTEN HERRITARREI LAGUNDU, ETXE HUTSAK MERKATURATU, ALOKAIRUA SUSTATU ETA ALDE ZAHARRA BIZIBERRITZEA NAHI DU UDALAK

Lau urte dira dagoeneko Azpeitiko Udalak alokairurako diru-laguntzak ematen dituela. Hasieran,

gazteei zuzenduta bakarrik bazegoen ere, azken urteetan sustengu ekonomikoa behar duten kolektibo gehiago zirela oharturik, 70 urtetik gorakoei eta banandutako herritarrei zabaldu zitzairen. Arduradunek ustez, urtez urte eskaera berri gehiago iristen dira eta diru-laguntzaren beharra, beraz, nabarmentzen da. Iaz ere, laguntza jaso duten 77 herritarretatik, 24 eskatzaile berriak dira. Gainontzeko 53ak, eskatzaile errepikatuak dira.

Alde Zaharrean kokatzen diren alokatutako etxebizitza kopurua, berriz, 29koa da. Etxe hauek hilean 50 euro gehiagoko laguntza jasotzen dute Udalak Alde Zaharra eraberritu eta biziberritzearen aldeko apustuaren baitan hartutako erabakiari esker.

ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO LAGUNTZA DATUETAN



ESKATZAILEAK

Berriak 24
Errepikatuak 53




KOLEKTIBOAK

18-35 urteko gazteak: 67
Bananduak: 7
70 urtetik gorakoak: 3
Elbarrituak: 0
Alargunak: 0

ETXEBIZITZAREN KOKAPENA

Alde Zaharra: 29
Beste auzoak: 48



LAGUNTZAREN BANAKETA

0-15.000 euro bitarteko sarrerak 40
15.000-21.000 euro bitarteko sarrerak 16
21.000-30.000 euro bitarteko sarrerak 19
30.000-35.000 euro bitarteko sarrerak 2
Batazbesteko errenta: 481 eurokoa

ETXEBIZITZA BEHARRARI ERANTZUTEKO, ALDE ZAHARREKO HAINBAT ERAIKIN EROSI DITU UDALAK

ERA BEREAN, AZPEITIKO ERDIGUNEAREN ERABERRITZEAN PAUSOAK EMATEN JARRAITU NAHI DA



Alde Zaharreko eraikinak eraberritu eta etxebizitzaren eskaintza publikoa egiteko pausoak ematen jarraitzen du Azpeitiko Udalak. Honela, Eliz kaleko 3 etxe-atari erosi ditu (24, 26 eta 28 bis) eta etxe-atari bakarrean 12 etxebizitza egingo ditu. Horrez gain, Done Jakue kalean bi etxe-

atari oso bereganatzeko falta zi-tzaizkion etxebizitzak ere eskuratu ditu, eta Errebaleko etxe-atari bat erosteko hitzarmena ere itxita du.

Etxebizitza eskubidea bermatzeko bidean, hainbat urrats eman ditu dagoeneko udalak, besteak beste, alokairurako diru-laguntzak jarri ziren, etxe hutsen gaineko zergan gainkarga ezarri zen, herritarren etxebizitza beharrak ezagutzeko azterketa egin zen iaz eta datozen hilabeteotan datorren hamarkadarako etxebizitza plana osatzea du helburu.

Plan horretan, Alde Zaharrean eragitea ere bildu nahi du Udalak. Azken urteotan Udalak Alde Zaharrean egindako eskuhartzeek eraldaketa sakona eragin dute: "Baina erabat berritzeko eraikinak berritu eta jendea bertan bizitzen jartzea falta da", agertu du Leire Goenaga zinegotziak.

Honela, Eliz kaleko 24 Bis, 26 eta 28 zenbakidun etxe-atariak erosteko aurreakordioa itxita duela jakinarazi du Josu Labaka zinegotziak: "Ekimen pribatuko eskaintzan dauden etxe libreen eskaintza, eskaintza publikoarekin orekatu eta arrazionalizatu nahi dugu. Eta, bide batez, eremu urbano zaharkituari irtenbidea eman".

Gainera, Done Jakue kalean bi bloke oso bereganatzeko Udalarari falta zitzaizkion etxebizitzak ere erosi ditu: "Bi bloke horiek gaur gaurkoz bota egingo ditugu. Hala, kale horretatik Xoxoterako eskailera horietako gune iluna argituko dugu. Hor etorkizunean etxebizitzak eraikitzea ere aztertu daitekeen aukera izan daiteke", jarraitu du Labakak. Bukatzeko, Errebalean ere etxe-atari bat erosteko lanak aurreratuta dituztela ere adierazi du.

Maidier Aizpurua
KOZ-ko monitorea



1.- Zer da Kirol Orientazio Zerbitzua?

Herritarren artean, sedentarismoa eta inaktibitate maila murrizteko sortu den proiektua da, pertsona inaktiboak aktiboak bihurtzeko, eta beste guztien jarduera tasa goratu eta mantentzeko balioko duena. Norbanakoen egoeratik abiatuz, jarduera fisikoa egiteko ohitura eguneroko bizimoduan errotzea lortu nahi da pertsonen ongizatean eragiteko.

2.- Nola sortu da proiektu berri hau?

Egun, sedentarismo eta jarduera fisiko eza mundu mailako arazoak dira. Gure inguruan ere bai. Horren konponbiderako gizartearen esparru ezberdinetako eragileak batera aritzea beharrezkoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, apustu-estrategikoa egin da biztanleek jarduera fisiko gehiago egiteko eta ohitura sedentarioak murrizteko. Azpeitiko Udalak bat egin du Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektuarekin.

3.- Nor joan daiteke zerbitzu horretara?

Edozein adineko herritarrentzat irekita dago; ume, gazte, heldu, adineko... Denak eskuzabalik hartuko ditugu. Halere, lehentasuna izango dute, arrazoi batetik edo bestetik, jarduera fisikoa egiten ez dutenek edo gutxiegi egiten dutenek, eta nondik eta nola hasi ez dakitenean. Proiektua ahalik eta jende gehienengana iristeko asmoz, herriko eragile ezberdinekin lankidetzan dinamikari ari gara, hala nola; ikastetxeekin, Udal zerbitzuekin, e.a... Horri esker, informazioa herritar gehiagotara iritsiko da, eta bertara hurbiltzen den pertsona efizienteago laguntzeko aukera izango dugu, edozein dela ere sexua, jatorria, aniztasun funtzionala edo maila sozioekonomikoa.

4.- Nolako izango da Kirol Orientatzailearen lana?

Lehendabizi, elkarrizketatxo bat egiten dut norbanakoen osasun maila, interesak, zailtasunak etabar jakiteko. Alderdi horiek baloratu ondoren, bizimodu aktiboagoa izateko aukerak proposatzen ditut, beti ere, egokien datorkion jarduera aholkatuz. Ondoren, jarraipen pertsonala egiten dut, nola doan ikusteko eta laguntza beharko balu, laguntzeko.

5.- Zein abantaila izan ditzake kirol orientazio zerbitzua erabiltzeak?

Askotariko onurak...ez bakarrik fisikoak baita psikologiko eta sozialak ere. Egunerokoan, gutxiago nekatu, hobeto lo egin, jende berria ezagutu, bestelako arazoak prebenitzen lagundu... Zenbat eta osasuntsuago sentitzen garen, orduan eta gehiago gozatu ahal izango ditugu gure bizia eta ingurua.

— AZPEITIBILI —



KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE ORIENTACIÓN DEPORTIVA

Asteartean:

10:30-12:00 eta 15:30-17:00

Igerilekuan

Doakoa, herritar guztientzat

Txanda hartzeko: igerilekuan bertan,

edo 943 81 41 21 deituta eta

koz@azpeitia.eus helbidera idatzita

ERABILI ZERBITZUA!